



Zer da Home-Start Gipuzkoa?

Home-Start Gipuzkoa programaren helburua, boluntarioen laguntza informalaren eta ez-profesionalaren bidez, haien haurrak hazteko zailtasunen bat izaten ari diren gurasoek seme-alabak zaintzeko, hezteko eta haiekin harremanak izateko baldintza hobetan sentitzea da, haurren eta familia-talde osoaren ongizatea bultzatuz horrela. Programaren protagonistak familiei laguntzen parte hartzen duten boluntarioak eta familiak berak dira. Programak bi aldeei laguntzen die aholkularitza talde profesional baten bidez. Talde horrek konfidentzialtasuna, aukera-berdintasuna eta parte hartzen dutenen babesa zainduko ditu.

Programaren helburuak

- Familiei babesa, harreman pertsonala eta laguntza praktikoa eskaintzea, beren guraso-roletan eta familia-antolaketan (autonomiaren alde lan eginez).
- Komunikazioan eta malgutasunean oinarritutako laguntza-harremana garatzea, familia bakoitzaren behar espezifikoaren arabera.
- Gurasoak animatzea, laguntzea eta sostengua ematea komunitateko gizarte-sareetan integratzeko, komunitatean parte-hartze eraginkorra eta inguruko baliabideekiko (sozialak, hezkuntzakoak, sanitarioak, kulturalak, aisialdikoak, etab.) lotura sustatuz, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko.

Boluntariotzaren onurak Home-Start familientzat

Proiektuak hainbat onura ekar ditzake parte hartzen duten familientzat. Onura hauek nazioartean egindako hainbat ikerketek berretsi dituzte eta horrek bereziki baliotsua egiten du orain Gipuzkoan abian jartzen ari garen Home-Start programa (1973an Erresuma Batuan sortua). Onura horien artean hauek aurkitu ditzazkegu:

- Familia-isolamendua murriztea eta sareak handitzea.
- Guraso eta seme-alaben arteko harremanak sendotzea.
- Gurasoen eta seme-alaben osasun fisikoa eta ongizate emozionala hobetzea.
- Gurasoei bizi-fase honetako pozak estimatzen laguntzea eta hazteko trebetasunak hobetzea.
- Etxeko giroa hobetzea.
- Partaidetza eta komunitate-bizitzarako sarbidea hobetzea, familiarentzat baliagarriak diren gizarte-zerbitzuak barne.

Informazio gehiagorako:

943251005-688644354
infoHSG@baketik.org
k.soares@baketik.org

baketik

www.baketik.org | 943 25 10 05

